

ZARRAK ETA GAZTEAK

Zarren eta gazteen arteko aituzina, gizona balizen antxiñakoa dogu istillu au, Gizasemea beti bai dogu arrosko ta buruzut; zarrak ezta amor egin nai bere eritxietan, eta gazteak, naiz-ta luma bakoa izan, kukurruku goiztarregiak bota bear, Ortik sortuak dira gero sekulako buru-auste maketsak: etxean, guraso ta seme-alaben artean, errian langille ta ugazaben artean, politikan, idazleetan, nainun dira garrasi ta gedar ikaragarriak. Ezin-egona, irrintzi itoa, edo e zitoa!

Au, egia esan, loak artuta egoitea baiño obe dogu. Zerbait esan nai dau onek: itxartu naia, bizi naia, lan egin naia. Ta aux beti dozu eder. Mundu osoaren aurrera ekitean, olako momentu berezian gagoz gaur: bide barriak artu, lengo burdiari saka egin, aurreko izarrai begira, itzal artean zear, buru tente ta ameslari, ezkutu barri billa, aurrera beti. Ta aurrera egite ontan atzera geratu nai dauanari ots egitea, garrasi egitea edonok ontzat artu bear dau. Mendira goaz, Gorbei tontorrera ta norbait, gazte naiz zar, San Justo'tik Zanburu'rako aldatzean atzera gelditzen ba'yaku, irrintzi egin oi dau tsagu, edo atzeratu yakunari eskutik oratu ta aldatz-gorako bidea geugaz egiten lagundu.

Gazteak sarri ertzekoegiak, radikalegiak izaten dira. Gaur gure artean lez, Motz eta itsusitzat daukie eurak osotu ez daben guztia. Zarrenik eztabe artu nai. Eta pizkat gogo-kiribildu ta ausnar ezkerro, euren inguruko aurrerakuntza guztia, itsuakezpa-dira beintzat, zarrakandik artua dabela autortu bear. Lengoaan eibartar batek ifios-tan: "Nik dirua aurreztu? Ez olakorik! Nik baiño mundu ohea daukie nire seme-alabak; ni Elgeta'ko baserri batetik jatsi nintzan ona, neuk jarri neban tailler au, neure ingurukoan antzera: nire semeak, ba, eztabe dirurik bear; emen daukie tailler eder au, berton lan egi-

ñaz ederto biziko dira". Gaur euskal errian dakusgun aurrerapena, dana dalakoa, ezta gazteena, oraindik bizi diran zarrena baiño. Eta nik, neure ez-jakinean, albora itxi ko ete ditut zar oneik? Edo-ta, euron lan ederra zapustu? Zentzun bako ta ergel nintzake!

Eta beste au: noz gara zar, ta noz gazte? Berrogei urte naikoa al dira gizonarenak egiteko? Bein sasoi ortara ezkerro, sarri esan oi da: "Au naiko errea daukagu". Egia ete? Erdi-adiñari dautsagun bildur baltza susterduna eta da? Gaurko askoren eritxiz, gizonarentzat urterik onenak berrogeitik irurogerakoak dira, bai gogapenez bai zentzunez, oso onurakor ta balioitsuak; sasoi ontako gizasemeen pentsamentuak, sakon, azke ta argiak, balio andia dabe. Garai auxeda psikologo askorentzat, bigarren gaztaro jator loratsua. Beraz, soindarrean espada be, adimen-ke-mean asi daiteke berrogei urtetan bizi izaten.

Ona, arira dtorkit eta, egunokaz Bilbao'ko aldizkari baten A. Ventura'k idatzia. "Adiñak, urteak esitzen al dau —diño— gizonen pentsaera? Ortik kanpo ez ete dagoz Bea kardinala ta Maximos erkaba, euren 80 urte luze lepo-gaiñ dabezala, Eleizan alderdirik aurreratuen artekoak izanik? Beste albeste eta da Juan XXIII'garrena, bere bizitzako azken-urteetan, Eleizearen tankera, egitura ta estrukturak ain kementsu ifiarrosi, askatu ta itxalazteko? Adiñak ez dot uste gizonak sailka ipinten dabezanik-zanik. Gorputza zartzen da, baita jalotz-agiria be, baiña siñismena ta barrua euren osotasunean sendo dagozanean, uste ta izamenak be zutik iraunten dabe, aldiñaz eta ekaitzak makur-azten ez daben areitzaren antzera.

Gertatu oi dana auxe da: aginpide-aulkira igot-an —eta ez diñot erlejiño-maillakoakaitik bakarrik, baita erri-maillakoakaitik be— zuzen-orratza aldatu egin oi dabe gel-

enik, zurtasunak gelago al dau arriskuak baiño, segurantzai baiño da itz-emona bete baiño, zar-euslarien ikur-esaera au bete: "txar ezagutua obe, on ezagutu bakoa baiño, zar-euslarien ikur-esaera au bete: "txar ezagutua obe, on ezagutu bakoa baiño"; gaurko izatasunen alde jokatzan da ta ez biar-ko balioen alde. Onexek bear da-ba agirian jarri dakusku; zer gero? Geure uste osoko ziran gizon askok, gizarteko maillak onerik on aldatzean, iruzur egin dauksuela, Ixilmixika saiestu yakuzan, ez euren urteakaitik, euren bizibide, aukera ta onagaitik baiño. Euren bizimodu barrian burdi garalleari oratu eutsoen ordurarte euren jardun-bidea gizonki marratu eben itxaropenak sastakatu ta il-erazorik. Nasaitasunezko txantela izenpetu eben, errenta ta mozkiñetatik bizi, ots, nasal azteko".

Aunaskagarri dala be, orrelaxe dozu. Baiña egoera nasalak itxirik aurrera jo bear da, golan altaturiko esaera ori ezpaita osoz egia: ona ezagutu barik be, txar ezagutua baiño ohea dogu. Beraz, oltura jarrailuz eroso bizi garean txarra itxi ta atseden barik onaren billa alegindu bearra daukagu. Orrela jokatzekotan, lenari oratu ta irmo dagoan zarrak jar'eku eroso yakon argaitza itxi bear dau ta beste obeago batera aldatu, naizta berendako mingarri izan. Aldatzea gizonarena da. Eziaz, zerbait geure indarrez lortu dogunean, be-za zaindu nai izaten dogu. Ezta arritzekoa, geure izerdiaren seme da-ta: berau eskuetatik bota ta beste bat artzean aldatz-gorako bidea yaku. Tentelkeri itzala litzake, alan be, gauza ezerez bategaitik beste obeago bat ez a'datzea, onek nekea dakargulako bakarrik, bear bada.

Guk geure lurrean zar ta gazteok darabilgun auzian, danok zerbait itxi ta aldatu bearrean gagoz. Zarrok ba-leiteke lotuegi egoitea irabazi aitzari: gazteak, euren aldetik, gangar gorrieziko agertzen yakuz. Eta alkarregaz bizi ta aitu-bearra dogun ezkerro, geure zergura aldetiko ekifiaz euskal erria jaso ta aurrerapen-bidean aritu bear dogun ezkerro, guztion indarrak batean korapillotu ta alkarlaguntza gozoan lan egin bear dogu. Lengoaan idatzi eustan batek: "Bai politikaz ta bai kulturaz, zar erromantikuen erruak dira gazte-enganetik ain aparte ibiltzea". Ba-leiteke egia izatea, baiña gazte auzartak, goiztar soñu'ariak be ez dagoz erru barik. Alderdi biak, ba, alkarri eskua emonik, zibilizaziño biak, lengoa ta oraingo, burartzen salatu bear. Lengoa ta oraingo baserri bizitza, lengo ta oraingo tailler-lana, lengo ta oraingo literatura, lengo ta oraingo modak.

A. O.



Nork KUKURRUKU!!!

Ollarrak

ollotegian?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian